


Bigarren eskuko jostailu zaharrak bildu, berpiztu eta berriro ere merkaturatu

Golaia izeneko enpresa txiki honetan, egungo arazo nagusi batzuei aurre egiteko prest dagoen lantalde bikain bat aurkezten zaizue. Gehienbat gaztetxoei zuzendua dagoela irudituko bazaizue ere, denon onurarako ekintza bat dela argi izan behar duzue, edonork jaso ahal izango du eta berarentzako mesedegarri den apur hori.



Jakin badakigu, gaur egungo gizarte honetan, geure aisialdiaz gozaten laguntzeko jostailu asko ditugula, geroz eta modernoagoak gainera, horretan noski, teknologia aurreratu honek zerikusia izan duela argi dago. Izan ere, gaur egun topa ditzakegun objektuak ez dira geure arbasoek eduki zitzaketenen berdinak, askozaz ere aukera gehiago baitugu egungo merkaturatan. Hori zoragarria dela ezingo luke inork ukatu, baina bai, geure erabilpenaren nondik norakoa nolakoa izaten den.

Jostailu dibertsitate handi eta zabala izateak, bere onurak eta kalteak izan ditzake sarri. Haurrak, gaztetxo, zein ez gaztetxo diren gehiengoek, tramankulu edota bestelako liburu, puzzle... probatzeko joera nabarmena izaten dute. Baina behin, objektu hori apurtu edota berarekin aspertzen direnean, alde batetara utzi eta zakarretara botatzeko joera izaten dute, hala, ikaragarritzko hondakinak sortuz.



Joera hori saihestearren, geure enpresa xume honek edonolako jostailu zaharrak bildu, horiei konponbide zuzen eta egoki bat eman, eta berriz ere merkaturatu ipintzeko ardura sendo bat hartzen du. Noski, jostailu horiek, lehenaldiz merkaturatu ziren bezala itzuliko baditugu ere, prezioak ez liratekeen berberak izango, askozaz ere baxuagoak. Alzken batean, geure enpresaren beste helburu nagusietako bat, jende behartsua geuregana gerturatzea ere izango da, egungo gizartean, ez baitago, kalitate onean dauden jostailuak prezio baxuan eskaintzen dituzten enpresarik. Diru iturrien kontuak ere garrantzia izango duenez (azken finean ezin gaitzeko arazo horietan murgildu), jostailu multzo eder bat eskuratu arte ez ginateke salerosketan hasiko. Geure enpresa firruabarrenan kokatua egongo litzateke, alkilerrean sartuko ginateke beraz. Beste enpresekin arremantetan ipintzea ere ezinbestekoa genuke salerosketarako. Esaterako, geuk salduko ez genituzkenak beste enpresa batzuei salduko genizkieke. Allianzaren beraz garrantzi handiko kontu bilakatuko dira, proiektuak aurrera joaten den heinean.